

OIARTZUNGO MUGIMENDU FEMINISTAK UDALARI AURKEZTEN DION MOZIOA

Duela gutxi izan dugu eskualdean, Erreterian, hain zuzen, 2021. urtean gertatu zen eraso matxista larriaren berri: Erreterriako indarkeria unitatean lan egiten zuen ertzain batek emakume bat erasotu zuen.

Emakumea Oreretako Ertzain etxera joan zen babes agindu baten urraketa berri ematera eta indarkeria matxista kasuekin lan egiten zuen ertzain batek deklarazioa hartu zion. Biharamunean, ertzain hori bera emakumearen etxean agertu zen, dokumentu batzuk emateko aitzakiarekin eta, etxe barruan zegoela, emakumea erasotu zuen. Ertzaina akusatua eta zigortua izan zen eta 2.190 € ordaindu behar izan dizkio erasotu zuen emakumeari. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburu den Josu Erkorekaren arabera, espedientea ireki zioten ertzainari, baita ertzaina indarkeria matxistaren biktimak babesteko unitateak kendu ere.

Isilpean igaro dira 3 urte eta ez dakigu zer gertatu den erasotutako emakumearekin denbora guzti horretan. Ez dakigu laguntza jaso ote duen. Lehenik, bikoteak eta, ondoren, ustez babestu behar zuenak erasotu zuten. Ez dakigu bi eraso horiek jasan eta gero, berriro ere instituzio publikoetan konfiantza izatera iritsi ote den.

Erasotu zuen ertzaina lan administratiboetara bideratu zenean, ez dakigu emakume horren edo beste batzuen datu pertsonaletara sarbiderik ba ote zuen. Horrelako gertaera larri baten aurrean, ez dakigu zergatik ez zen kaleraketarik egon.

Argi ikusten da gorputz polizialek duten boterea eta herritarren eskubideak zapaltzeko ez ezik eraso zuzenak egiteko informazioa erabiltzeko gaitasuna dutela. Ertzaintzak bere boterea baliatzen du, torturatzen du eta eraso matxistak egiten ditu. Berriro ere, argi geratzen zaigu gorputz poliziala sistema heteropatriarkal, arrazista eta kapitalista babesteko sortua dela.

Egoera horren aurrean, Oiartzungo Feministen Asanbladak ondorengo eskatu nahi dio Oiartzungo Udalari:

- 1.- Erasotutako emakumeari elkartasuna adieraztea eta horrelako kasuen aurrean dauden baliabideak emakumeari iritsi zaizkiola ziurtatzea.
- 2.- Erreterriako Ertzaintzako komisaldegia herriaren ezinegona helaraztea, eta indarkeria matxistagatik erasotuak izan diren emakumeekiko harrera eta arreta protokoloak berbegiratu, eguneratu eta hobetzeko eskaera egitea.
3. Udalak indarkeria jasaten duten emakumeak behar bezala artatuak izan daitezen bermatzeko urratsak ematea, horretarako beharrezkoak diren zerbitzuen eta protokoloen bidez.

Oiartzunen, 2024ko maiatzean